

AUZOEN KONTSEILUAREN 2010-10-07KO BATZARRAREN AKTA.

2010eko urriaren 7an, 19:00ean, Udaletxeko pleno aretoan, auzoen kontseilua bildu zen.

Bertaratuak:

Buruak: Niko Moreno eta Jose Garaizabal

Kideak: Jose Angel Sagasta, Juan M^a Zenitagoia, Roberto Mendibil, Modesto Mugika, Markos Arroita, Gotzone Irigoien, Josi Bernas, Luis M^a Garro, Patxi Landaburu eta Aitor Alberdi.

Urkiola Landa Garapenerako teknikaria: Kati Simon.

Idazkari lanetan: Agurtzane Arbulu.

GAI ZERRENDA:

Gai zerrendako lehenengo puntuari ekin aurretik, Alkateak Kati Simoni eman zion hitza. Katik azaldu zuen nola Urkiola Landa Garapen Alkarteak eta Mendinetek "Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) Dinamizatzaileren Proiektua" abian jarri dutela. Esan zuen baita egitasmo horren helburu nagusia landa-eremuak Informazio Gizartearekin bat egiteko laguntza eskaintzea dela. Horregatik, beren laguntza eskaini zuen eta edozein auzokidek zerbait behar badu, berarekin harremanetan jartzeko eskatu zuen.

Auzokideak geratu ziren auzo bakoitzean dauden arazoak edo gabeziak jaso eta Katiri pasatzeko.

1.- AUZOEN KONTSEILUAREN ESTATUTUEI EGINDAKO EMENDAKINEN KONTSULTA.

Atal honetan, Jose Garaizabalek azaldu zuen alegazioak aztertu dituela eta gehienak onartzeko modukoak direla. Auzolan Batzordetik pasatu aurretik, Kontseiluan aztertzea eta komentatzea komeni zela, kontseilu kideen iritzia jasotzeko.

Markos Arroitak hartu zuen hitza eta alegazioak, banan-banan, azaldu zituen, eta bakoitzaren zergatia adierazi zuen.

Jose Garaizabalek erantzun zion azalpenak kontuan hartuko direla Auzolan Batzordean.

2.- DATORREN URTERAKO AUZO-BIDEEN GARBIKETA.

Atal honetan Niko Moreno alkateak adierazi zuen, bideak garbitzeko, datorren urteko kontratua egin aurretik, auzo guztien iritzia eta premiak jaso nahi dituela. Esan zuen, halaber, inizatiba berriak egon direla, auzokideek beraiek lan horiek egiteko; esaterako, Berriozabaletakoek prest daude euren auzoan lan hori egiteko. Gobernu kideek begi onez ikusten dute proposamenari eta jakinarazi zuen beste auzoek zer dioten jakin nahiko lukeela.

Auzo batzuetako ordezkariak galdetu zuten euren auzoko bideak garbitzea ea zenbat kostatzen den; hori jakinda erabaki ahal izateko.

Alkateak hitza eman zuen hurrengo egunean bialduko zuela informazio hori auzo bakoitzera.

Jose Garaizabalek auzokide bakoitzari plano bat eman zion (nork bere auzokoa) jakin dezaten zer bide garbitzen diren.

Lekeriketa auzoko ordezkariak esan zuen bere auzoan ez direla pasatzen.

3.- AUZO-BIDEEN NEGU ARAZOAK.

Atal honetan, aurrekoan moduan, Jose Garaizabalek plana zabaldu zion ordezkari bakoitzari, elurra dagoenean, premia gehien duten bide-zatiak markatzeko.

Bide ertzeetako belarrak mozteko egin den moduan, elurra kentzeko ere gonbidapena pasatzen du Jose Garaizabalek, eta auzoren batek bere auzoan lan hori egin nahi badu, esan dezala.

ESKARIAK ETA GALDERAK

Atal honetan Markos Arroitek hartu zuen hitza eta honakoak aurkeztu zituen:

-Inbertsioak.

- Basoko pistekin arazoak.
- San Lorentzon poda egitea komeni da. Nikok erantzun zion pentsatuko dutela.
- Lapurtutako ispilua ea noiz ipini behar duten.
- Kontenedoreen basea ea noiz ipini behar duten, udarako esan zutela.
- Autobus gestioa. Alkateak esan zuen, antza, ez dela bidezkoa, ez dagoela aurreikusita.
- Auzoetarako bide ertzak asfaltatu, bide gorri baten bidez edo espaloi txiki bat.
- Farolak, noiz ipini behar diren. Alkateak erantzun zuen aurkeztuta dagoela eta aurrekontua eginda dagoela.
- Baserrietan ipinitako farolen kontsumoa txarto kalkulatu dago. Lehen gaueko tarifa moduan aurreikusi zen, baina orain ez dago holakorik. Gainera, adierazi zuen, auzokide batzuk gau osoan ez dutela argia piztuta. Alkateak proposatu zion hori auzoan bertan konpontzeko. Esan zuen Markosek argiaren kopstua, behar den moduan eginda, nahi duela.
- San Lorentzoko bolera IBla.

Ondoren, Alkateak aditzera eman zuen Karlos Ibarrondok, egun horretan bertan, idatzia sartu zuela auzoetan garraio publikoa Udalak ipin dezan.

Karlos Ibarrondok azaldu zuen baserrietarako garraio publikoaren kontu hau lurretan dutela ezarrita eta nahiko ondo funtzionatzen duela. Elorrion, batzuetan, pertsona adinduak, medikuenera edo dena delakoa, herrira bajatu behar dutenean ez dutela norekin jeitsi. Gaineratu zuen epea dagoela horretarako diru-laguntza eskatzeko.

Jarraian, Patxi Landaburuk, Gazeta auzoko ordezkariak, esan zuen eskabide bat egin zuela baina ez duela erantzunik jaso. Besteen artean Anguren-Zubiñera bidea oso txarto dagoela, eta bertan bidegurutzean, ispilu bat behar dela.

Gazetako ermita aurrean argiak fundiduta daudela era esan zen, gainera, orain 30 urte ipinitako farolak dira.

Berio auzoko ordezkariak esan zuen batzuetan ahalegintzen dela Udalarekin harremanak izaten eta ez duela erantzunik jasotzen, e-mailez, eta eskertuko lukeela erantzunik jasotzea.

Urkizuaraneko ordezkariak aditzera eman zuen Pedro txikineko baserritik Angiora doan bidean zulo mordo bat daudela.

San Agustineko ordezkariak esan zuen auzokideek aurkeztu zutela eskabide bat, San Agustinen elkarte bat egiteko lurzati bat eskatzen.

Alkateak erantzun zion elkarterako egoitzarik ez dagoen auzoetan horrelako erabilerarik ez dagoela, baina Plan Orokorrean sartu dela eta behin betiko onartzen bada, orduan baimentzen da ekipamenduetarako lokala egitea.

Aldapeko ordezkariak galdetu zuen ea nola doan kontenedoreen gaia.

Alkateak erantzun zion 2 alternatiba daudela baina arazoak daudela.

Leizko ordezkariak esan zuen Leiz aldean erreka kutsatuta dagoela. Alkateak galdetu zion ea untxiekatik den.... errekerimendua bialdu zaiola.

Zenitako ordezkariak aditzera eman zuen esanez ikerketa bat egin zutela putzu beltzen inguruan eta galdetu zuen ea nola doan kontu hori.

Alkateak erantzun zuen Kontsorziokoak esan dutela herriko ura dutenek dutela lehentasun, azterketak egiten omen dabilta. Dena dela, hilaren 18an batzarra duela eurekin esan zuen eta ea zerbait gehiago zehazten duten.

Eta beste barik, bilera 21:35an amaitu zen.